

UDALBURUA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko UZTAILAREN 20an  
EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Lauren Uria  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea, Gentza Alamillo Udaeta jauna, da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/85) 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU            EZ

DIRENAK

Josu Artetxe  
Esteban Hernando

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Udalburu jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko ekainaren 22an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Iraida andreak (Aiara Batuz), aktari dagokionez, eskatu du “Galderak eta eskaerak” ataleko lehenengo puntuan jasotzeko ez dela iritzi pertsonala, Aiara Batuz udal-taldearen eskaera baizik. Halaber, eskatu du, hurrengo aktetan, Aiara Batuz taldeko ordezkariaren batek esandakoa jasotzean, taldea “Aiara Batuz” izenarekin identifikatzeko, eta ez “AB” siglekin (orain arte horrela egin da).

Idazkariak adierazi du aktan xehetasun hori islatuko duela, eta hurrengo aktetan taldea eskatutako izenarekin identifikatuko dela.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen arteko 2017 ekitaldikolankidetzaren hitzarmena.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Udalak euskarazko komunikazioa sustatu nahi duela udalerrian.

**IKUSI DA.-** Aiaraldea Kooperatiba Elkartea, besteak beste, euskaraz dagoen [www.aiaraldea.com](http://www.aiaraldea.com) webgunea sustatzea eta hari sostengua ematea duela xede, eta, horren bidez, hizkuntza-normalizazioa bultzatzen dela. Aiara horren guztiaren onuradun da.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udala eta Aiaraldea KooperatibaElkartea lankidetzan aritzeko 2017 ekitaldiko hitzarmena, tokiko euskarazko hedabideak sustatzea eta finantzatzea helburu duena.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko uztailaren 11n emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiarako Udalak Aiaraldea Kooperatiba Elkarteari emandako diru-laguntza zuzena, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida izenduna dagoela, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 9 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udala eta Aiaraldea Kultura eta KomunikazioElkartea lankidetzan aritzeko 2017 ekitaldiko hitzarmena, tokiko euskarazko hedabideak sustatzea eta finantzatzea helburu duena.

**Bigarrena.-**Udalburuari hitzarmena sinatzekoahalmena ematea.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, Elkarte horri jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu eta Udalari itzul diezaion.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskaingintza Kontseilua Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2017 ekitaldirako, Aiaraldean euskararen erabilera normalizatzeko.**

Nerea andreak (BILDU) galdetu du zein den diru-laguntzaren zenbatekoa. Izan ere, dokumentazioan eta hitzarmenean ez da zifra bera agertzen.

Idazkariak erantzun dio zenbateko zehatza 396,32 euro direla.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Udalak euskararen erabilera normalizatzea sustatu nahi duela udalerrian eta eskualdean.

**IKUSI DA.-** Aiaraldeko Euskaingintza KontseiluaElkarateak euskararen erabilera normalizatzeko ekintzak ezartzeko xedea duela, lan horretan sartuta dauden eragile guztiekin lankidetzan.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskaingintza Kontseilua Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena, 2017 ekitaldirako; Aiaraldean, euskararen erabilera normalizatzeko Kontseiluaren funtzionamendua eta ekintzak finantzatzeko.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko uztailaren 11n emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta 2017 ekitaldirako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida dagoela, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aurrekontu-luzapenean gaudenez, oraindik ez dela onetsi 2016 ekitaldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa. Hortaz, bidezkoa da Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (2015ean onetsia; 2016rako luzatua) aldatzea; zehazki, III. eranskina, Euskara Saileko diru-laguntzen jarduerari buruzkoa. Bertan, diru-laguntza izendun hau gehitu behar da.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 9 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE:**

**Lehenengoa.-** Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2017 ekitaldirako, Aiaraldean euskararen erabilera normalizatzea sustatzeko.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, Elkarte horri jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu eta Udalari itzul diezaion.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udaleko aurrekontuan Aiarako Udal Administrazio Batzordeen arteko parte-hartzearen banaketa arautzeko ordenantza.** Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, urte honetako eta aurreko urteko batzorde askotan landu dela ordenantza, eta Administrazio Batzordeei ere azaldu izan zaie hainbat bileratan. Gehitu du, planteatzen den finantzaketaz gain, ordenantzaren bidez, Udalak egun zuzenean ematen dituen zerbitzuak ematen jarraituko duela; horren zenbatekoa, gutxi gorabehera, 80.000 eurokoa da. Era berean, obretarako eta ordainsarietarako diru-laguntzak ematen jarraituko du; bakoitza 35.000 euroko zenbatekoan.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du ordenantza ondo dagoela abiapuntu gisa. Hainbat auzitan amore eman da adostasunera iristeko, eta beste ekarpen batzuk aintzat hartu gabe utzi dira; hala ere, ontzat hartzen dute gutxieneko ekarpen batzuk bermatzea Administrazio Batzorde txikienetarako; horrela, neurri batean, Udalak Luiaondon eta Arespalditzan, eta Ikastolan, bereziki, egiten dituen obra handiak konpentsatzeko.

Iratxe andreak (Aiara Batuz) adierazi du abiapuntu hori gehiago landu behar dela; bere ustez, oraindik zerbitzuen eta beste diru-laguntzen katalogoa idatzi behar da, Administrazio Batzordeek horren berri izan dezaten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bi dokumentu gehiago egin nahi direla. Batetik, obretarako eta ordainsarietarako diru-laguntzak arautzeko ordenantza bat; eta bestetik, ematen diren zerbitzuak jasoko dituen dokumentu bat. Azken hori izapiddeen eskuliburuaren gaiari lotuko zaio.

Iratxe andreak (Aiara Batuz) esan du ez duela oso argi zein den jarraitu beharreko prozedura.

Idazkariak azaldu du, hasierako onepenen ondoren, jendaurrean jarri behar dela 30 eguneko epean, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Eta alegaziorik badago, Udalbatzak ebatzi beharko ditu.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) eskerrak eman dizkie talde guztiei onespengatik; izan ere, guztiek amore eman behar izan dute xehetasunen batean ordenantza aurrera atera ahal izateko. Eta, zalantzarik gabe, finantzaketa edukitzea alderdi positiboa da Administrazio Batzordeentzako.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Udalak beharrezkotzat jo duela Aiarako Udaleko aurrekontuan Aiarako Udal Administrazio Batzordeen arteko parte-hartzearen banaketa arautzeko ordenantza egitea.

**IKUSI DA.-** Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak 2017ko uztailaren 17an emandako aldeko txostena.

**IKUSI DA.-** 2017ko uztailaren 18ko Administrazio Batzordeekiko Harremanen Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpena.

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 9 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE**:

**Lehenengoa.-**Hasiera batean onestea Aiarako Udaleko aurrekontuan Aiarako Udal Administrazio Batzordeen arteko parte-hartzearen banaketa arautzen duen ordenantza.

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai egoteko 30 laneguneko epea irekitzea, erabakia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, edozein interesdunek aurkeztu ahal izango ditu bidezkotzat jotzen dituen alegazioak. Hasiera bateko onespeneren inguruko alegaziorik aurkezten ez bada, hasiera batean onetsitako erabakia behin betikotzat jo eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

**5.- Honako hauen berri ematea: udal-zenbaketen aktak, gastuen eta diru-sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2017ko martxoko, apirileko eta maiatzeko kredituen aldaketak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- 268/17 erref.- Afesa Medio Ambiente.- Eskatutako Udal Artxiboko informazio publikoa ikusteko baimena ematea.
- 269/17 erref.- JA.B.P.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren hobaria ematea, familia ugariaren titularra izateagatik.
- 270/17 erref.- F.G.R.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- 271/17 erref.- MP.U.I.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- 272/17 erref.- AM.A.J.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- 273/17 erref.- JA.L.L.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- 274/17 erref.- AM.M.Q.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- 275/17 erref.- JM.A.C.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- 276/17 erref.- ERAGINTZA KULTUR ELKARTEA.- Jolas Txokoa programarako begirale-zerbitzua esleitzea.
- Erref.- 277/17.- G.C.A.- 2017ko Ibilgailuen gaineko Udal Zergatik salbuestea, desgaitasuna dela eta.
- 278/17 erref.- A.E.A.- Ukatzea 2017ko Hiriko OHZren hobaria jasotzeko eskaera, familia ugaria izateagatik. Ez ditu betetzen ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak.
- 279/17 erref.-MI.H.M.- 2017. urterako Hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariaren titularra izateagatik.
- 280/17 erref.-MC.G.B. eta E.M.N.- 2017. urterako Hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariaren titularrak izateagatik.
- 281/17 erref.-MA.A.G.- 2017. urterako Hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugariaren titularra izateagatik.
- 282/17 erref.- F.R.R.- Obrarako hirigintza-lizentzia ematea Menagaraiko lursail batean dagoen murrua konpontzeko.
- 283/17 erref.- 3-2017 kreditu-transferentziari dagokion espedientea onestea.
- 284/17 erref.- “Valle de Llanteno” Kultura eta Arte Elkarte.- 2016. urtean ekintzak egiteko emandako diru-laguntzaren zati bat itzultzeko espedientea abiaraztea.
- 285/17 erref.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarte.- Ordainketa egiteko eskatzea, 2016. urtean emandako diru-laguntzaren zati bat itzultze aldera.
- 286/17 erref.- Dorreko Pilota Kluba.- Legezko interesa ordaintzeko eskatzea, 2016. urtean emandako diru-laguntzaren zati bat itzultze aldera.
- 287/17 erref.- Ama Birjina Zuria elkarte.- Ordainketa egiteko eskatzea, 2016an emandako diru-laguntzaren zati bat itzultze aldera.
- 288/17 erref.- Izalde Abesbatza.- Legezko interesa ordaintzeko eskatzea, 2016an emandako diru-laguntzaren zati bat itzultze aldera.
- 289/17 erref.- Luxaondo Futbol Kluba.- Legezko interesa ordaintzeko eskatzea, 2016an emandako diru-laguntzaren zati bat itzultze aldera.
- 290/17 erref.- J.G.U.- Espedientea abiaraztea, 2012ko urriaren 24ko 34/2012 Dekretuaren bitartez emandako bereizteko lizentzia iraungi dela adierazteko.
- 291/17 erref.- Onestea F/2017/7 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- 292/17 erref.- Viable Gestión Concursal SLP.- Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresari bahitutako abala itzultzeari buruzko akordioa.
- 293/17 erref.- “Luiadon botika-kutxa jartzeko etxola berritzeko” obraren bukaerako 5. ziurtagiri-likidazioa onestea.

- 294/17 erref.- EBA, Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL.- Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina eraberritzeko obran hautemandako gabeziak zuzentzeko eskatzea.
- 295/17 erref.- 4-2017 zenbakiko kreditu-transferentziaren espedientea onestea.
- 296/17 erref.- Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea, oporrak direla eta.
- 297/17 erref.- Landa-giroko OHZren errolda onestea (2017 ekitaldia).
- 298/17 erref.- Hiriko OHZren errolda onestea (2017 ekitaldia).
- 299/17 erref.- INYCOM, Instrumentación y Componentes SA.- Horniduren kontratu txikia.
- 300/17 erref.- B. C. G.- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritzea.
- 301/17 erref.- O.G.C.- Dokumentu gehiago eskatzea, Luiaondoko fisioterapia- eta osteopatia-klinikarako lokala eraberritzeko obra-jardueraren lizentziaren espedientea osatzeko.
- 302/17 erref.- Aiarako Bake Epaitegiko idazkaritza kargutik kentzea eta berria izendatzea.
- 303/17 erref.- Aiara udalerrian, kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak aldatzea.
- 304/17 erref.- Llanteno Administrazio Batzordea.- Obrarako lizentzia ematea, Llanteno eskola zaharren eraikineko teilatua konpontzeko.
- 305/17 erref.- Construcciones Menoyo Gochi SL enpresak aurkeztutako 1. ziurtagiria eta faktura onestea, 84.709,46 euroan (BEZa barne).
- 306/17 erref.- Naturgas Suministro GLP SAU.- 2017ko bigarren hiru hilabetean lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea.
- Erref.- 307/17.- Naturgas Energía Distribución SAU.- 2017ko bigarren hiru hilabetean lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea.
- 308/17 erref.- Euskara sustatzeko diru-laguntza eskatzea (2017. urteko EBPN-ESEP).
- 309/17 erref.- Diru-laguntzak ematea 2016an beste udalerrri batzuetako kiroldegietako kuotak ordaintzeko.
- 310/17 erref.- O.G.C.- Obra-jardueraren lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- 311/17 erref.- Alday Ongintza Fundazioa.- Fidantza eskatzea "A-624 errepidetan lurpeko bidegurutzea gauzatzeko" obrek eragindako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko fidantza eskatzea.
- 312/17 erref.- B.C.G.- Bere jabetzako txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroan.
- 313/17 erref.- E.S.S.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitzako terraza konpontzeko eta kanpoko murraren harriak elkartzeko.
- 314/17 erref.- Pilbacken SL.- Agiri gehiago eskatzea industria-nabearen estaldura ordezkatzeko obrak gauzatzeko udal-lizentziaren espedienteari buruz.
- 315/17 erref.- Alday Ongintza Fundazioa.- Udal-lizentzia eta obrak hasteko baimena ematea, A-624 errepidetan (Arespalditza) lurpeko bidegurutzea egiteko.
- 316/17 erref.- Bake Epaitegiko idazkaria izendatzea.

- **317/17 erref.- I.P.U.- Obrarako lizentzia ematea, Llanteno udalerrian dagoen eraikin bateko estaldurak duen itogina konpontzeko.**

\* Iraida andreak (Aiara Batuz) 292/17 Dekretuari buruz galdetu du.

Idazkariak erantzun dio Gurbisaren lehia-administrazioetik eskatu dutela langileei zor zitzaizkien ordainketetan erabili ez den abalaren zatia itzultzeko. Eskatu zaie ziurtagiriak aurkeztu ditzatela langile horiek direla eta Ogasunari eta Gizarte Segurantzari dirurik zor ez dietela frogatzeko.

\* Iraida andreak (Aiara Batuz) 316/17 Dekretuari buruz galdetu du, zehazki galdetu du ea izendapen hori ez zuen Udalbatza Osoak egin behar.

Idazkariak erantzun dio Bake Justiziar buruzko araudiak ezartzen duela Bake Epaitetik idazkariak Udalak izendatu behar dituela, baina ez du eskumen hori Udalbatza Osoaren esku uzten. Tokiko Erregimenari buruzko araudiaren arabera, Udalbatza Osoak ez du eskumen hori, eta alkatearen esku daude langileei buruzko eskumenak; dena den, gelditzen diren eskumenak Alkatearen esku daude. Gainera, idazkariak adierazi du premiaz ebatzi beharreko kontua zela.

\* Nerea andreak (BILDU) 268/17 Dekretuari buruz galdetu du; zehazki, ea zeri buruz ari den.

Idazkariak azaldu du azkenaldian, araudia betetze aldera, alkatea ebazpenak ematen hasi dela informazioa eskatzera edo espedienteari zein artxiboari buruzko kontsultak egitera etortzen diren interesdunei baimena emateko. Orain arte, espedienteren bat edo artxiboko agiriren bat ikusi nahi zutenek, artxibozainarengana jo behar zuten, eta hark bilatzen zuen, bestelako formaltasunik gabe. Hala ere, herritarrek artxiboko agiriak eta administrazio publikoen erregistroa ikusteari buruzko araudi bat dago; horren arabera, alkatezadekretuak eman behar dira eskatutako agiriak ikusi ahal izan ditzaten.

➤ **Hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, eguneko aztergaien zerrendatik kanpo dauden bi puntu gaineratzea proposatu da.**

*\* Lehenengoak erreferentzia egiten dio Limpiezas Villar enpresak igorritako faktura bati. Fakturak erreferentzia egiten dio 2016an emandako zerbitzu bati, bere garaian akats baten ondorioz ez baitzuten fakturatu.*

Lehenik eta behin, premiazkotasuna bozkatu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute. Ondorioz, honako puntu hau gehitu da osoko bilkurako eguneko aztergaien zerrendara:

**7.- 2/2017 zorrak judizioz kanpo aintzatestea.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Judizioz kanpo kredituak aitortzeko 2/17 espedientea.

**IKUSI DA.-** Idazkari-kontu hartzaileak 2017ko uztailaren 18an eginiko txostena.

**AINTZAT HARTU DIRA.-** Toki Ogasunen Lege Arautzailearen testu bategineko 176. artikulua eta 500/1990 Errege Dekretuko 16. artikulua (Toki Ogasunak arautzen dituen).

Bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 9 kidek) aho batez hau **ERABAKI DUTE**:

**Lehenengoa.-** Onestea judizioz kanpoko kredituak aitortzen dituen 2/2017 espedientea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera:

- 2017/SE/101106 zenbakiko faktura, COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresarena, 2017ko ekainaren 30ekoa, 2016ko abenduan KZ-guneko lokalak garbitu izanari dagokiona; horren zenbatekoa 60,72 € da.

- **Bigarrena.-** Aipatutako kredituen aitortza 2017 ekitaldiko aurrekontuari egoztea, 920.227.000 zenbakiko aurrekontu-aplikazioari (udal-bulegoen garbiketa), hain zuzen.

*\* Bigarren puntuaren xedea da Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea, aurreko osoko bilkuran egindako akats bat zuzentzeko.*

Gaiaren inguruko bozketa egin da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute. Ondorioz, honako puntu hau gehitu da eguneko aztergaien zerrendara:

**8.- Aldatzea, bidezkoa bada, Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina, kultura- eta kirol-arloari dagokiona. Aldaketa horren bitartez, Valle de Llanteno arte- eta kultura-elkarteari emandako 6.000 euroko diru-laguntza zuzena gehituko da. Horrez gain, aldatu egingo da “udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta/edo partikularrentzako diru-laguntzen” zenbatekoa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** 2017ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2017ko maiatzaren 4ko osoko bilkuran onartu zela, Udaleko 2017ko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Planhorren I. eranskinean, kultura- eta kirol-arloan diruz lagun daitezkeen jardueri buruzkoan, ez zela jasotzen Valle de Llanteno arte- eta kultura-elkartearen aldeko inolako diru-laguntza izendunik, Aiara udalerrian kultura- eta arte-jarduerak sustatzeko.

Eta bigarren ataleko laburpen-taulan 35.000 euro jasotzen direla udalerriko elkarteei diru-laguntzak emateko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Udalbatzak, 2017ko ekainaren 22an, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuela elkarte horrekin; hitzarmen horren bitartez, Udalak hitz eman zuen 2017an 6.000 €-ko ekarpena egingo ziola, baina akats baten ondorioz, ez zen erabaki Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea.



Halaber, egun horretan bertan erabaki zen 330.481.004 partidaren aurrekontua aldatzea eta 4.000 € gehitzea.

2017ko uztailaren 20ko osoko bilkuran, bertaratutako Udalbatzako kideek (Udalbatza osatzen duten 11 kideetatik 9) aho batez bozkatu ondoren, honako hau **ERABAKI DUTE**:

**LEHENENGOA.-** Aldatzea Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (“kultura eta kirola arloko diru-laguntza jarduera”); hala, zazpigarren puntuan honako hau gehitu da: “Diru-laguntza ematea Valle de Llanteno arte- eta kultura-elkarteari, Aiara udalerrian artea eta kultura sustatzeko hainbat ekimen eta jarduera sustatu eta antolatu ditzaten.

Xede hori babesteko, Udalak urteko 6.000 euroko diru-laguntza bat emango dio, hitzarmen baten bidez. Laguntza horren helburua da elkarte horrek dituen gastuak ordaintzen laguntzea, pintura-, margoketa-, zur-zizelkatze, eta zeramika-ikastaroak antolatu ahal izateko.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza guztiak laburbiltzen dituen taulan, 7. erregistroa gehitu da: “Diru-laguntza Valle de Llanteno arte- eta kultura-elkartearentzat: lankidetzeta-hitzarmena Valle de Llanteno arte- eta kultura-elkartearekin; laguntzaren zenbatekoa 6.000 eurokoa da, eta 334.481.001 partidaren kargura egingo da”.

Horrez gain, 2. erregistroa aldatu da: “udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta/edo partikularrentzako diru-laguntzak”. Horren zenbatekoa 39.000 euro da.

## **9.- Eskaerak eta galderak.**

- Iraida andreak (Aiara Batuz) aipatu du hitzarmenetan zenbatekoa zenbaki eta letra bidez agertu beharko litzatekeela, eta balioduna letraz idatzitakoa izan beharko litzatekeela.
- Lauren jaunak (BILDU) esan du Eusko Jaurlaritzak 4 milioi euroko partida bat duela saneamendu-azpiegituretarako, eta hor sartu daitekeen gastuetako bat Goi Nerbioiko araztegirako lurzorua erostea izan daiteke. Baina galdetu du ea nor arduratuko den desjabetze horiek egiteaz.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio esleipen hori URAREN aurrekontuan dagoela, eta agentzia hori arduratuko dela exekuzioaz. Desjabetzeak Eusko Jaurlaritzak egingo ditu. Bukatu da hasiera bateko onespenera alegazioak jartzeko epea. 18 edo 19 alegazio aurkeztu dira, eta Eusko Jaurlaritzako zerbitzu juridikoa horiek aztertzen ari da. Proiektua behin betiko onesten denean egingo dira desjabetzeak.

- Nerea andreak (BILDU) eskatu du osoko bilkuraren aztergaien zerrendatik kanpo dagoen puntu bat igortzen denean, zerrendan sartzeko, telefono bidez horren berri emateko zinegotziei, posta elektronikoari begiratu diezaioten; izan ere, batzuetan ez dira jabetzen informazio berria jaso dutela.

Jorrazeko beste aztergaiarik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota

gera daitezen, akta hau egin da, eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazazpiko uztaileen hogeian.

O.E.  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.:Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.:Naiara Lazpita Marcos